

Aldizkari bat baino gehiago, liburu mamitsu bat

Asnabik "TK" aldizkariaren 22. zenbakia aurkeztu du, ale zinez interesgarria

IRUÑEA. Nafarroako Asnabi elkarteak TK bere aldizkariaren 22. zenbakia plazaratu du orain gutxi. Liburuzainen elkarte honek urtean behin aurkezten du aldizkari hau. Asnabi-tik esan dutenez, bereziki harro sentitzen dira azken ale honetaz, askorako ematen baitu aldizkari honen azken zenbakia. Berez, aldizkari bat baino gehiago hobeto egokituko litzaioke liburua izendatzea; eduki interesgarriez beteriko liburu bat.

Lan hau Juan Manuel García Cámara Asnabi-ko presidenteari eginiko elkarrizketa batekin hasten da. Beste artikulu batean García Cámarak gogoratzen du nola Barricada rock taldea iazko urtarrilean izan zen Azkoiengo udal liburutegian. Horrekin batera, TK-ren azken alean zenbait liburuzainek eta kolabora-tzailek urtean zehar antolatutako ekitaldien berri ematen dute. Ildo horretan, bada olerkigintzarekin ausartzen denik ere eta Irurtzungo Beatriz Lacalle Ustarrozek hiru olerki idatzi ditu argitalpen honetarako. Eta Pedro Osesi egindako elkarrizketa bat ere aurki daiteke aldizkari honen edukien artean.

Horren ostean, ale honen harribitxia dator. TK-k Nafarroan euskaraz idazteak zer suposatzen duen galdetu die 18 idazleri. Anjel Erro, Patxi Larrion, Juan Karlos Lopez-Mugartza, Jon Alonso, Josetxo Azkona, Aingeru Epaltza, Inma Errea, Luis Garde, Josu Jimenez Maia, Alberto Ladron Arana, Hasier Larretxea, Pello Lizarralde, Laura MIntegi, Josu Penades, Felipe Rius, Ruben Ruiz, Bixente Serrano Izko eta Mikel Taberna izan dira eran-tzun dutenak. TK-ko lagunek galdera batzuk bidali arren eta gida-lerro batzuk eskaini bazizkien ere, bakoi-tzak nahi izan duen moduan eran-tzun du. Azkenean, idazleen arteko horrelako solasaldi aberatsa lortuda. Erantzunik pertsonalena Hasier Larretxearena izan da, bere idazle grinaren inguruko testu ederra.